

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO | ATALA / SECCIÓN | FUNTZIONALA / FUNCIONAL |
|-----------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------|
| 04. Kultura 04. <i>Cultura</i> | 06. Euskara 06. <i>Euskara</i> | 120.101 Hizkuntza Normalizazioa 120.101 <i>Normalización Lingüística</i> |

Hizkuntz Normalizazioari buruzko egitarauak helburu jakin bat du, alegia, Foru Administrazioaren benetako hizkuntz normalizazioa lortzeko oinarriak eta behar diren bitartekoak jartzea; hau da:

- Euskararen Erabilera Arauzkotezko Legeak administrazio publikoei buruz xedatzen duena betetzea.
- Bermatzea, hala Bizkaiko Foru Aldundiak hiritarrekin dituen harremanak, nola berak eskaintzen dituen zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izango direla.
- Bizkaiko Foru Aldundian euskara, zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza ere badela bermatzea.

Helburu hori lortzeko eskura ditugun bitartekoen artean hauxe nabarmendu gura dugu: "Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalkuntzarako IV. Plana", 2008–2012ko epealdirako". Plan horren helburu orokorra euskararen erabilera bultzatzea da, eta bertan atal elebidun aktiboen izendapena proposatzen da. Atal elebidun aktiboak dira, ataleko kideek hala erabakita, euskara ataleko lan-hizkuntza bihurtu dutenak.

Era berean, kontuan hartu beharko da Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetzeta hitzarmen bat aplikatuko du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin sinatuta: foru-langileen hizkuntza-prestakuntzarako eta lan-ordutegi barruan euskara ikastaroetara doazen langileen ordezkapenak finantzatzek.

Orain arte bezalaxe, aurtien ere, Bizkaiko Foru Aldundiko eta bera Erakunde autonomoen langileen euskararen ezagutza eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko ebaluazio probak egingo dira.

El programa de Normalización Lingüística tiene como objetivo poner las bases y proporcionar los instrumentos necesarios para la efectiva normalización lingüística de la Administración Foral. Esto significa:

- Cumplir con las disposiciones de la Ley de Normalización del Euskara en lo que a las administraciones públicas atañe.
- Garantizar que la relación que la Diputación Foral de Bizkaia mantiene con la ciudadanía, así como los servicios que ofrece, se pueden dar en las lenguas oficiales.
- Hacer que el euskera, además de lengua de servicio, sea también lengua de trabajo en la Diputación Foral.

Entre los instrumentos de que se disponen para conseguir este objetivo cabe destacar el IV Plan de Normalización del Uso del Euskara de la Diputación Foral de Bizkaia, para el período 2008-2012. Dicho plan tiene como objetivo general la promoción del uso del euskera en la administración, y en el mismo se proponen la denominación de unidades administrativas bilingües activas, que son aquellas que por propia decisión de sus trabajadores realizan la mayor parte de su trabajo en euskera.

Así mismo, también habrá que tener en cuenta el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 22/2009, de 17 de febrero, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

La Diputación Foral de Bizkaia aplicará el convenio de colaboración firmado con el Instituto Vasco de Administraciones Públicas, para la formación lingüística de su personal y para financiar las sustituciones del personal que asista a los cursos de euskera en horario laboral.

Asimismo, continuará con la evaluación del conocimiento del euskera y acreditación de los perfiles lingüísticos del personal de la propia Diputación Foral de Bizkaia y sus organismos autónomos.



2013

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

| SAILA / DEPARTAMENTO | ATALA / SECCIÓN | FUNTZIONALA / FUNCIONAL |
|------------------------------------------|------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|
| 04. Kultura 04. Cultura | 06. Euskara 06. Euskara | 120.101 Hizkuntza Normalizazioa 120.101 Normalización Lingüística |

Erabilera programan jarraipena emango zaio azkenego aldian ekin zaion lan-bideari, hau da, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere izan dadin, bultzatzen duen egitasmoari, hain zuzen ere. Bide hori jorratzeko EraMi (erabilera mikroplana) berri bat abian jarri nahi da Gizarte Ekintza Sailaren Administrazioaren eta Plangintzaren Zuzendaritzaren Kontrol Atalean. Bestalde, orain arte jardunean ari diren EraMiak bere horretan jarraituko dute.

Euskararen erabilera sustatzeko egitasmoan eta ON-LINE trebakuntza-sistemaren barruan, Hizkuntza Normalizazio Atalak bigarren ikastaro bat egin du. Ikastaro honek 40 orduko iraupena izango du eta trebakuntza ikastaroen egitarauaren barruan eskainiko da.

2013 urtean zehar ere, ekingo zaie ON-LINE 1.0 ikastaroaren berrikusketa lanei.

En el programa de fomento del uso se continuará desarrollando la línea de trabajo que incide en el euskera para que además de ser lengua de servicio sea también lengua de trabajo. Además de continuar con el resto de los que ya están activos, se comenzará con un nuevo EraMi (microplán de uso) en la sección de Control de la Dirección general de Administración y Planificación del Departamento de Acción Social.

En este programa de fomento del uso, y dentro de la formación ON-LINE, la Sección de Normalización Lingüística ha elaborado un segundo curso en este sistema, que se ofrecerá dentro de los cursos de formación, con una duración de 40 horas.

También durante el año 2013 comenzarán los trabajos para la revisión del curso ON-LINE 1.0.